



Lukene oso sugedorri maitagarria da:
berdea eta beltza, beltzak ditu begiak, eta mihia,
gorria eta oso-oso luzea.




Gaur haren urtebetetzea da.
14 urte betetzen ditu eta lagunak opari asko eman dizkiote:
sagarrak, gozokiak, lepoko berri bat, jertsea eta pilota bat.
Urtebetetzeko postal ugari ere ailegatzen ari zaizkio.



Arratsaldean urtebetetzeko jaia ospatzen ari dira. Zorionak zuri abesten dute eta urtebetetzeko janaria jaten dute: bokatak, gozokiak, irabiakiak, patata frijituak, hanburesak, galletak eta izugarri polita den urtebetetzeko pastel handi bat, 14 kandela eta guzti.




Jaia amaitu da eta lagunek agur esan diote:
-“Agur, Lukene, zorionak!”
-“Agur, eskerrik asko. Bihar arte”



Lukene ez dago batere pozik orain.
Jaia oso ona izan da, baina orain dena hankaz gora eta
zikin dago.

-“Ez dago inolako arazorik” -esaten du Maialenek
-“elkarrekin txukunduko dugu dena. Ez kezkatu”



Ordu erdi geroago, dena dago apainduta eta garbi-garbi.
Orain eseri daitezke eta lasaitu.
Oso urtebetetze polita izan da!

3. Zorionak, Lukene!

1. Erantzun lehen orrialdeari buruzko galderi:

- Nor da Lukene?
- Nolakoa da?
- Zer koloretakoa da?
- Zer koloretako begiak dauzka?
- Nolakoa du mihia?
- Zenbat urte ditu?
- Sugegorri bat izateko, zaharra edo gaztea da?

2. Erantzun bigarren orrialdeko galderi eta egin ariketak:


- Zer egun da gaur?
- Noiz da zure urtebetetzea?
- Galdetu zure hiru laguni eta bete taula:

Izenak	Urtebetetzea

- Zenbat opari jaso ditu Lukenek?



- Elkartu hitza eta irudia:



Jertsea
Pilota

Oparia
Gozokiak

Lepokoa
Sagarrak

- Idatzi Lukeneri urtebetetzeko postala, beheko testuko hitzak ordenatuz:

<p>Kaixo Lukene:</p>	<p>_____</p> <p>_____</p>
-----------------------------	---------------------------

Zorionak askotarako zure laguna zure urtebetetzean eta urte

3. Egin hirugarren orrialdeari buruzko ariketak:

- Ikasi abestia




Zorionak,
Zure urtebetetzean,
Zorionak
Eta urte askotarako, zorionak
Belarritik tiratzean, zorionak
Eta musu bat, zuretzako.



- Jarri izena gauza hauei:

- Zein da gehien gustatzen zaizun urtebetetzeko janaria? Egin marrazki bat.



4. Egin laugarren orrialdeari buruzko ariketak:

Amaitu ipuina

Lagunek agur esan diote	Dena hankaz gora dago. Lukene haserre dago.	Dena dago apainduta eta garbi-garbi.


- Bilatu ikasitako hitz batzuk letra-zopa honetan:

S	U	G	E	G	O	R	R	I	B
A	T	O	L	I	P	O	S	O	E
O	N	Z	U	M	O	A	K	D	G
O	P	O	S	T	A	L	A	E	I
B	O	K	A	T	A	K	G	I	A
N	A	I	H	I	M	D	U	Z	K
U	A	A	D	N	A	F	U	B	G
U	R	K	A	L	E	T	S	A	P

Idatzi bilatutako hitzak, eta irakurri eta idatzi ezkutatuta dagoen mezua:



Egin letra-zopa bat zure lagunarentzat, ipuinean agertzen diren hitzak erabiliz



Kontrol-orria

3. Zorionak, Lukene!

5. Erantzun lehen orrialdeari buruzko galderi:

- Nor da Lukene?
Lukene sugedorri bat da
- Nolakoa da?
Oso maitagarria da
- Zer koloretakoa da?
Beltza eta berdea da
- Zer koloretako begiak dauzka?
Beltzak dauzka begiak
- Nolakoa du mihia?
Bere mihia gorria eta oso luzea da
- Zenbat urte ditu?
14 urte betetzen ditu
- Sugedorri bat izateko, zaharra edo gaztea da?
Zaharra da

6. Erantzun bigarren orrialdeko galderi eta egin ariketak:

- Zer egun da gaur?
Gaur Lukeneren urtebetetzea da
- Noiz da zure urtebetetzea?
Nire urtebetetzea da ...
- Galdetu zure hiru laguni eta bete taula:

Izenak	Urtebetetzea

- Zenbat opari jaso ditu Lukenek?
Lukenek opari pilo bat jaso du




- Elkartu hitza eta irudia:



Pilota



Sagarrak



Gozokiak



Oparia



Jertsea



Lepokoa



- Idatzi Lukeneri urtebetetzeko postala, beheko testuko hitzak ordenatuz:


<p>Kaixo Lukene:</p> <p>Zorionak zure urtebetetzean eta urte askotarako.</p> <p>Zure laguna,</p>	<p>Lukene Sugedorria</p> <hr/>
--	---------------------------------------

7. Egin hirugarren orrialdeari buruzko ariketak:

- Ikasi abestia



Zorionak,
Zure urtebetetzean,
Zorionak
Eta urte askotarako, zorionak
Belarritik tiratzean, zorionak
Eta musu bat, zuretzako.



- Jarri izena gauza hauei:

				
TARTA	IRABIAKIAK	HANBURGESAK	ZUKUAK	GALLETAK
				
PATATAK	GOZOKIAK	PASTELAK	PASTAK	BOKATAK

- Zein da gehien gustatzen zaizun urtebetetzeko janaria? Egin marrazki bat.




8. Egin laugarren orrialdeari buruzko ariketak:


Amaitu ipuina



Lagunek agur esan diote



Dena hankaz gora dago.
Lukene haserre dago.



Dena dago apainduta eta
garbi-garbi.

- Bilatu ikasitako hitz batzuk letra-zopa honetan:

S	U	G	E	G	O	R	R	I	B
A	T	O	L	I	P	O	S	O	E
O	N	Z	U	M	O	A	K	D	G
O	P	O	S	T	A	L	A	E	I
B	O	K	A	T	A	K	G	I	A
N	A	I	H	I	M	D	U	Z	K
U	A	A	D	N	A	F	U	B	G
U	R	K	A	L	E	T	S	A	P

Idatzi bilatutako hitzak, eta irakurri eta idatzi ezkutatuta dagoen mezua:

Oso ondo egin duzu, agur.



Egin letra-zopa bat zure lagunarentzat, ipuinean agertzen diren hitzak erabiliz

